

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a

629. zenbakia

UDALBATZA/ Legealdi erdia bete ondoren, udalbatzatik kanpo jarraitzen dutela salatu dute

Udalbatzan ordezkaritza izatea eskatu du BAK

EDU MENDIBIL

Bergara Aurrerako kideek udalbatzan ordezkaritza izatea eskatu zuten asteleheneko osoko bilkuran. Bi urte dira azken udal hauteskundeak egin zirela, eta BA udalbatzatik kanpo dago. Alkateak gaia landu behar den tokian lantzen dihardutela esan zuen.

Erregu eta galderen txandan etorri zen BAKo kideen eta alkatearen arteko eztabaida. Jesus Mari Garitano BAKo kideak hitza eskatu zuen: "Legealdi erdia bete da, eta, herriak agindutakoari kasu egin gabe, aurrera egin duzue. Ez

legealdia ezta udalbatza ere ez dira demokratikoak eta udalbatza osatzen duzuenoi zer egiteko asmoa duzuen galdetu nahi dizuet. EAJk eta EAK nahi duzelako gaude egoera honetan. Gu ez gara bergararrak, ala? Guk lana egin arren, ateak ixten dizkiguzue. Zoritxarrez, historiara pasatuko zarete. Bideak badaude egoera hau konpontzeko", esan zuen Garitanok.

Alkateak gaiaren gainean lanean dihardutela erantzun zion: "Parlamentuan eta beste leku batzutan. Arduratuta gaude gaiarekin, baina soluzioa ez dago gure esku". Alkatearen erantzunaren ondoren osoko bil-

kuran ziren herritarren zarak eta protestak izan ziren.

Aralarren partetik Iñigo Iñurategik gaurko egoera demokratikoki osasuntsua ez dela onartu zuen. Denon esku proposamenak lantzea eskatu zuen Aralarko zinegotziak.

BATZORDEEN KONTUA GELDI

Bestalde, Maite Guridik batzordeetan ere lan egiteko aukerarik ez dutela salatu zuen. Alkateak eskatutakoa bete arren, kanpo jarraitzen dutela. Victoriano Gallastegik euren errua dela leporatu zion BAKo kideei, gauzak behar den moduan aurkeztu ez dituztelako.



Bergara Aurrerak deituta, udalbatzaren aurretik elkarretaraztea izan zen plazan.



Pilota sailaren zozketako irabazleak

Bergara KEko pilota sailak egindako zozketan, Luis Mari Gutierrezek irabazi du lehen saria; 4.101 zenbakiaren jabeak domekako buruz buruzko finalerako bi sarrera eta 500 euro eskuratu ditu. Bigarren saria, berriz, 3.576 zenbakiarendako izan da. Marisol Mansok Erreki jatetxean lau lagunendako afarria eta 200 euro irabazi ditu. Irudian, saritutakoak zozketako antolatzaileekin.

LABUR

Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, hilaren 8an, Seminarioan, ohiko ordutegian

Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, odol ateratzea egingo dute eguaztenean, ekainaren 8an, Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera. Ekainaren 22an izango da hurrengo odol ateratzea eta uztailan beste bi izango dira, hilaren 13an eta 27an.


Barnetegietara edota Udako Euskal Unibertsitatera joateko laguntzak

Udan barnetegiren batera euskara ikastera edota Udako Euskal Unibertsitatera doazenez diru laguntza eska dezakete Udako Euskara Zerbitzuan.

Argibideak 943 77 91 66 telefono zenbakian edota www.bergara.es/Udala/Antolaketa/Euskara helbidean.

JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRESNAK



Oidor Berriozabalbeitia, 14
48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel/Faxa: 94 623 18 03

Salmenta
eta
konponketa



HONDA
STIHL®
SAME



VIKING®

MEDITERRANEOKO

ADRIATIKOAN ETA EGEON

GRAND^{AK}



%10 + %7 ko DESK.



GRAND LATINO

GRAND LATINO PROGRAMAZIOA 8 EGUN / 7 GAU

Umeak
DOAN

MANTENU
OSOA

BARRUALDEA lehen ~~359€~~ orain **300€**

KANPOALDEA lehen ~~565€~~ orain **473€**

Ibilbidea: VALENTZIA, VILLEFRANCHE (Monako), LIVORNO (Florentzia), CIVITAVECCHIA (Erroma), NAPOLI, TUNISIA, VALENTZIA.

3 eta 4
pertsona
Doan



GRAND MISTRAL

GRAND MISTRAL PROGRAMAZIOA 8 EGUN / 7 GAU

Umeak
DOAN

MANTENU
OSOA

BARRUALDEA lehen ~~415€~~ orain **347€**

KANPOALDEA lehen ~~649€~~ orain **543€**

Ibilbidea: BARTZELONA, LIVORNO (Florentzia), CIVITAVECCHIA (Erroma), NAPOLI, TUNISIA, MALTA, BARTZELONA.

3 eta 4
pertsona
Doan



GRAND VOYAGER

GRAND VOYAGER PROGRAMAZIOA 8 EGUN / 7 GAU

Umeak
DOAN

MANTENU
OSOA

BARRUALDEA lehen ~~749€~~ orain **643€**

KANPOALDEA lehen ~~920€~~ orain **786€**

Ibilbidea: VENEZIA, DUBROVNIK, CORFU, HERAKLION, RODAS, ISTANBUL, ATENAS edo alderantziz.

HEGAZKINA BARNE MADRIL EDO BARTZELONATIK

HEGAZKINA BARNE
NORAINONDIK
MADRIL EDO
BARTZELONA /
VENEZIA / ATENAS

%10 + %7ko deskontua aldeztu aurretik. Iragaritzen diren prezioak deskontua barne dute. Prezioak pertsonako, logela bikoitzean, pensio osoko erregimenean, irteera konkretuentzat bakarrik. Zatoz gure agenzietara eta galdetu irteera egunez eta promozioaren baldintzez. Karburantearen igoera, tasak, eskupekoak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Prezio zuzenak, tipografiako akastik egon ezean. ESERLEKU MUGATUAK.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN, EGITEN DUGU.

VIAJES IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

viajesiberia.com

HIRIGINTZA/ Uztailaren 29rako proiektu teknikoa eskuartean izan nahi du Udalak

Abian San Pedro eta Ariznoa urbanizatzeko proiektua

EDU MENDIBIL

San Pedro kaleko eta Ariznoa plazako urbanizazioko lanen proiektu teknikoa lantzea onartu zuen Udalbatzak astelehenean. Ariznoako eta San Pedro kaleko urbanizazio proiektuek 29.000 eta 25.700 euroko aurrekontua dute, hurrenez hurren.

Bi kasuetan ere momentuz ez dago aurreikusitako gastuari aurre egiteko diru izendapen nahikorik eta, gauzak horrela, lanak egiteko epea oraindik zehazteke dago. Edozein modutan, Ariznoa plazako eta San Pedro kaleko urbanizazioko lanen proiektu teknikoa adjudikatzeko lehiaketa deitu du Udalak. Bien bitartean, Udalak lanak finantzatu ahal izateko aukerak aztertuko ditu.

GALTZADA-HARRIA BISTAN

Hasiera baten, uztailaren 29rako proiektu teknikoa eskuartean izan nahi du Udalak. Bestelako hobekuntza lanez gain, Artekalea eta Arrurriaga kaleetan egiten diharduten moduan, galtzada-harria bistan lagako dute etorkizunean San Pedro kalean zein Ariznoa plazaren inguruan, Epaitegiaren eta San Pedro parrokiaren aurrealdean hain zuzen. Gaur egun San Pedro parrokia eta udalletexe artean dago ikusgai aipatutako galtzada-harria.

Jakingo duzuen bezala, Artekalea, Arrurriaga eta Goenkalea



Bestelako hobekuntza lanez gain, galtzada-harria bistan lagako dute etorkizunean.

Lanak egiteko epea oraindik zehazteke dago, diru izendapen nahikorik ez dagoelako

urbanizatzeko lanak abian dira apirilaren hasieratik aurrera. Azarora arte iraungo dute lanok. Esan bezala, galtzada-harria bistan lagako dute tarte horretan. Inaki Aspiazu arkitektoaren proiektuaren arabera, lanek 1,3 milioi euroko aurrekontua dute, eta %30 Jaurlaritzak ordainduko du.

LABUR

Lola Valverde Historia Katedradunaren hitzaldia martitzenean, Miguel Altunan

Bergara, historia topagunia hitzaldi sortaren barruan, Lola Valverdek *El abandono y la exposición infantil en Gipuzkoa en el siglo XIX* izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 7an, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean.

Lola Valverde EHUko Historia Katedraduna da eta 1990. urtetik Leioako Komunikazio eta Zientzia Sozialen Fakultatean ematen ditu eskolak.

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago

Udalak aditzera eman duenez, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epea uztailaren lehen bitartean izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, errekaragarekin kobratuko da. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin udal bulegoetan edota edozein banketxetan egin daiteke ordainketa. Argibideak 943 77 91 64 telefonon.


Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa ekainaren 9tik aurrera, DYaren eskutik

Gipuzkoako DYak antolatuta, sorosle eta lehen sorospen ikastaroa izango da Bergaran ekainaren 9tik aurrera. Ikastaroaren iraupena hiru astekoa da, ekainaren 29a bitartean hain zuzen ere; astelehenean egubakoitzera izango dira eskolak, 19:00etatik 21:00etara, kultura etxean.

Ikastaroa nahi duten herritar guztiei zuzenduta dago. Izenemateak 60 euro balio du eta plaza mugatuak dira. Argibide gehiago 943 46 46 22 telefono zenbakian.

1958an, 1935ean eta 1955ean jaiotakoek ospakizunak izango dira hurrengo asteotan

1958an jaiotako bergararrek afaria egingo dute ekainaren 11n, Zabala jatetxean. Egunean bertan Frontoian elkartuko dira, 20:00etan. Afarirako izenematea (12 euroko aurrerapena) Irrintzi tabernan egin daiteke. Bestalde, 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 12an Zuntelaga jatetxean. Izenematea (12 euro), Euskadiko Kutxan. 1955ean jaiotakoek, berriz, ekainaren 25ean afaria egingo dute Zabalan. Izenematea (15 euro aurrez) Frontoiko tabernan edo Zabala jatetxean egin daiteke.



Ion Murgizu margoak

Margolanak orokorrean
Margo dekoratiboa
Margo industrialia

Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
iiion@euskalnet.net



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com <http://www.megadenda.com>

eej musikagintza elkarlanean fundazioa

Eguneko menuak!

ZUHAIZTI
taberna

Astelehenean ostiralera eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

FUTBOLA/Vasconiaren aurka jokatu dute zapatuan, Zubietan, 17:00etan

Gazte mailako futbol taldeak Gipuzkoako finala du bihar

EDU MENDIBIL

Bergara KEko gazte mailako futbol taldeak Gipuzkoako finala jokatu du bihar, zapatua, Zubietan, 17:00etan. Bergararrak euren multzoko txapelkunak izan dira eta Vasconia beste multzoko liderraren aurka jokatu dute biharko finala.

David Lopez de Abetxukok eta Jose Ramon Beristainek zuzendutako taldeak liga txapelketa bikaina egin du: 28 partidu irabazi, lau berdindu eta bi besterik ez dute galdu bergararrek. Ligako azken partiduan, zapatuan, 14-0 irabazi zioten Urkiri. Multzoko txapelkunak izan ondoren, ohorezko gazte mailan arituko dira hurrengo denboraldian.

Hori gutxi balitz, Bergararen zerbakiak deigarriak dira: gol gehien egin duen taldea izateaz gain (184), Jon Soto eta Pol Lopez atezainei 28 gol besterik ez diete sartu. Defentsan zein erasoan talde onena izan da Bergara. Golegileen artean, aipamen berezia



BERRIGARA

Begararrak ohorezko gazte mailan arituko dira hurrengo denboraldian.

merzei dute Eloy Crespok eta Ibon Leibarrek: Crespok 30 eta Leibarrek 28 gol egin dituzte.

Edozein modutan, biharko finalean ez dute aurkari erraza izango; Donostiako Vasconia taldeak ere bi partidu besterik ez du galdu ligan. Beraz, finaletan gertatzen den bezala, pronostikoa ez da erraza.

KADETE MAILAKOEI, KOPAK IHES

Bestalde, Bergara KEko kadete mailako bigarren taldeak Kopako finala galdu zuen Antzuolaren aurka, Zumarragan. Bergararrak markagailuan aurreratu ziren, baina antzuolarrek buelta eman zioten partiduari (1-3). Txapel-dunorde izatearekin konformatu behar izan zuten bergararrek.

Lokatzako alebin mailako taldea, hirugarren Gipuzkoako Txapelketan

E.M.

Lokatza Ziklismo Eskolako alebin mailako taldeak hirugarren postua lortu zuen Gipuzkoako Txapelketan, erlojuz kontrako proban. Eskola arteko txapelketa zen, eta Lokatza-Aranzadiko taldekoak hirugarren geratu ziren, Tolosan. Argazkian, ezkerretik eskumara, Iñaki Berroia, Mikel eta Andoni Gorrotxategi eta Mikel Aristi, Peio Garitano zuzendariarekin. Infantil mailako taldea, berriz, 12. postuan sailkatu zen Tolosako proban.

Lokatza txirrindulari gaztetxoak Azkoitian lehiatuko dira bihar, zapatua.



Lokatza-Aranzadi taldeko gaztetxoak, Tolosan lortutako trofeoarekin.

LABUR

Futbol partiduak egunero Ipintzan eta futbito txapelketako bi partidu domekan kiroldegian

Gaur, egubakoitza, senior mailako nesken partiduak izango dira Ipintzan, 20:00etatik aurrera. Bihar, zapatua, gizonezkoen txapelketako partiduak jokatu dira, 09:15ean hasita eta astelehenetik eguaztenera, 19:00etan. Eguenean beteranoen txanda izango da, 19:00etan.

Domekan bi futbito partidu jokatu dira kiroldegian: Errotagaitz-Pirulotarrak (11:30) eta All Blacks-Pirulotarrak (17:00).

1992-1994 bitartean jaiotako gaztetxoendako frogak deitu ditu Bergara KEko futbol sailak

Datorren denboraldiari begira, gazte mailako futbol taldeetarako jokalar berriak hartzeko deialdia egin du Bergarak. Kirol frogak Ipintzan izango dira hurrengo astean: martitzenean, hilaren 7an, 1992an jaiotakoak joan daitezke; eguaztenean, 1993an jaiotakoak eta, azkenik, eguenean, 1994an jaiotakoak.

Aipatutako hiru egunetan 17:30ean eta kirol arroparekin arituko dira beharko dira interesatuak.

Pol-Pol Mendizale Taldeak hilaren 10ean rafting egitera joateko irteera iragarri du

Pol-Pol Mendizale Taldeak rafting egitera joateko irteera iragarri du. Hain zuzen ere, hurrengo aste bukaeran joango dira rafting egitera, hilaren 10etik 12ra, Huescako Val d'Aranera.

Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan, 19:00etatik 20:30era edo 943 76 48 51 telefono zenbakian.



Begararrak Aizkorriko maratoian

Xabier Lijo 149. tokian sailkatu zen domekan jokatuako Aizkorriko maratoian, 5 ordu, 31 minutu eta 4 segundoko denborarekin; Joxu Arana 194.a izen zen (5:52:40) eta Igor Labailenek 283. tokia eskuratu zuen (6:44:07). Bergaran bizi den Joxean Kerexeta legazpiarra 51. tokian iritsi zen (4:57:24). Rob Jebb britainiarra nagusitu zen, 3:54:18ko denborarekin.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

MUSIKA/ Elkarrekin emanaldia egingo dute Mariaren Lagundian, 20:00etan

Razvan Suma eta Josu Okiñena gaur, Bergaran

EDU MENDIBIL

Razvan Suma biolontxelo-jole errumaniarrak eta Josu Okiñena piano-jole donostiarrak emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan. Franck, Ginastera eta Piazzollaren piezak eskainiko dituzte. Sarrera doan da.

Razvan Suma (Cluj-Napoca, 1977) Errumanjako biolontxelo-jole onenetakoa da. 6 urterekin hasi zen biolontxelo jotzen eta 7 urterekin irabazi zuen lehenbiziko lehiaketa, 1985eko Cântarea României Jaialdian, hain zuzen ere. 1987an eta 1989an ere nagusitu zen Suma aipatutako jaialdian. Sari mordoa irabazi ditu ordutik hona, eta hainbat orkestrarekin emanaldiak egin ditu. Bakarleri gisa, besteak beste,

Moldaviako Orkestra Filarmonikoarekin edo Istanbulko Orkestra Sinfonikoarekin kontzertuak eman ditu. Era berean, artista gonbidatua izan da Alemaniako Dresdeko Musika Jaialdian.

Gaur egun Cellisimo lauokoteko kidea da, Marin Cazacu, Sanda Gutu eta Olga Manescorekin batera, eta The Romanian Piano Trioko kidea ere bai, Alexandru Tomescu eta Horia Mihail lagunekin.

Franck, Ginastera eta Piazzollaren lanak joko dituzte gaurko kontzertuan, Mariaren Lagundian

Josu Okiñenari dagokionez, Donostian, Madrilén, Londresen eta New Yorken egin ditu piano ikasketak. Marisol Imaz, Felix Lavilla, Oxana Yabloskaya eta Krystian Zimmerman izan dira bere irakasleetako batzuk. Ignacio Telleriaren pianorako eta orkestrako kontzertuan bakarleri aritu zen, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Juan Jose Oconen batutapean.

BI ZATI GAURKO KONZERTUAN

Emanaldiaren lehenbiziko zatian, C. Franck konpositorearen *Sonata para violoncello y piano en la mayor* eskainiko dute Okiñenak eta Sumak. Bigarrean, berriz, Ginastera-ren *Pampeana nº2* eta Piazzollaren *El gran tango* eta *Kicho* eskainiko dituzte.

Udalak eta Kutxak antolatutako emanaldirako sarrera doanekoa izango da.



Suma eta Okiñena Kursaalén ere aritu dira elkarrekin.

Udaberriko kontzertua domeka eguerdian Udal Pilotalekuan

E.M.

Musika Eskolako ikasleek Udaberriko Kontzertua egingo dute domekan, ekainaren 5ean, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. 300 bat ikaslek hartuko dute parte. Aurretik, Trikiti Taldeak kalejira egingo du, 11:30ean. Eguerdiko kontzertuan, berriz, Suzuki taldea, Akordeoi Orkestra, Gazte Banda, Txistu Taldea, Orkestra eta Abesbatzak jardungo dute.

'LOS CHICOS DEL CORO'

Andoni Sierraren zuzendaritzapean, Orkestrak Los chicos del coro filmaren selekzio bat joko du eta kontzertuaren amaieran *Vois sur ton chemin* abestia eskainiko dute 200 bat gaztetxok. Era berean, Lloyd Weberen *Any dream will do* ere kantatuko dute. Usue Rodriguez izango da bakarlaria.



VALEN MORLUX

Musika Eskolako Orkestrak Zumarragan emanaldia egin zuen aurreko egubakoitzean.

Musikaren moldaketa Roberto Bergarak egin du eta itzulpena, berriz, Rosa Narbaizak. Tere Aranzibia eta Oihan Vega aritu-

ko dira aurkezpen lanetan domekako kontzertuan. Ondoren, ohikoa denez, herri bazkaria izango da Espoioan.

LABUR

Simon Arrieta taldearen lanak Errotalden eta Luis Laskurainen margoak Arrasaten

Simon Arrieta zeramika taldearen erakusketa ikusgai dago Errotaldeko aretoan, domekara arte. Erakusketa ohiko ordutegian izango da zabalik.

Bestalde, Luis Laskurain margolari bergararraren erakusketa ikusgai dago Arrasateko Arregi arte galerian (Maalako Errebala, 8), ekainaren 20ra arte.

Gaztettoendako pintura eta marrazketa ikastaroa uztailen, Bearten eskutik

Beart elkarteak 6-15 urte bitarteko gaztettoei zuzendutako pintura eta marrazketa ikastaroa iragarri du udarako. Ikastaroa uztailaren 4tik 29ra egingo da, 10:15etik 12:15era. Izenematea: 653 71 53 82 (Mayra), Oihana (665 70 31 75) edota Maite (635 71 32 69).

Idoia Azkarate bergararraren margo erakusketa Donostiako Kursal kafetegian

Idoia Azkarate bergararraren margo erakusketa ikusgai izango da Donostiako Kursal kafetegian (Ramon Maria Lili 2) ekainaren bukaerara arte. Azkaratek 25 koadro inguru jarri ditu ikusgai, indar propioa duten lan koloretsuak.



943 76 20 61
BERGARA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

E, TXO!

ABIAN DA EUSKARAZKO SMS MEZUEN LEHIAKETA

Euskarazko sms mezuen beste lehiaketa bat abian da. Lehiaketan euskararekin jolas egin eta euskarazko sms mezuen argota sortu behar da. Sakelako telefonoaren zein ordenagailuaren bidez parte hartu ahal izango da. Lehiaketaren oinarriak eta eskura daitezkeen sariak honako helbidean daude: www.smsariketa.org. Webgunea dinamikoa izango da ekainaren 15era bitartean.

SEXUALITATEAREN INGURUKO WEBGUNEAK

EAEko Sexu Heziketa eta Familia Plangintzarako Atseginez erakundeak webgune berria ipini du abian. www.goxoki.com da webgunea kontsultatzeko helbidea. Bertan, sexuaren inguruko galderak, zalantzak... argitzeko aukera izango da. Izan ere, helburua da sexualitate eta kontrazepzioaren inguruan informatzea. 12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Atseginez erakundearen webguneak, besteak beste, sexuaren inguruko hiztegia du.

ATERPETXE BERRIA ZABALDU DUTE LEKEITION

Gazteek hemendik aurrera Lekeition Trinkete aterpetxe berri batera joateko aukera dute. 50 pertsonarentzako lekua du eta, besteak beste, Internet gela, egongela, bazkari zerbitzua, kirol zelaia eta garbitegia eskaintzen ditu. Gainera, hainbat jarduera egiteko aukera dago: itsas edo abentura kirolak. Informazio gehiago honako helbidean eskura daiteke: www.suspergintza.net/instalaciones/trinkete

GUREGAIK/ BIDEOJOKOAK

Jolasa eta teknologia, aisialdirako tresna

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eguneroko bizitzan oso presente daude bideo jokoak, zer esanik ez gazteen artean. Ohiko bihurtu arren, ezer gutxi dakigu horien inguruan. Hona hemen zenbait argibide bideo jokoaren gainean.

Lehen joko elektroniko interaktiboa 70eko hamarkadan sortu zenetik, bideo jokoak asko hobetu eta hedatu dira teknologiaren garapenari esker.


Bideo joko motak ere asko dira eta honako taldeetan banatzen dituzte: Arcade (pantailak gainditzean datza); ekintzazkoak; kirolletakoak; estrategiakoak; simulaziokoak eta mahai jolasak.

ALDE ETA KONTRA

Gizonezkoek jarduten dute gehien bideo jokoetan. Akziozko eta kirolletako jokoak atsegin dituzte. Emakumezkoek, berriz, mahai jolasak; logikazkoak, kartak edo puzzleak. Bestalde, erabiltzaile gehienek nahiago dute bakarka baino taldean jolastu.

Joko horiek hainbat kritika eta gorespen jaso dituzte. Batzuen aburuz, bideo jokoak txarrak dira, beste batzuen aburuz, burua gartzan laguntzen dute. Esaterako, aurka daudenek diote urduritasuna eta antsietatea zein mende-kotasuna eragin ditzaketela.

Badira bideo jokoaren gaineko gune interesgarriak: www.meristation.com; www.gamespot.com; www.cyberplanet.es.



Batzuek ordenagailuan jokatzen dute; besteek makinetan.

LOTSABARIK/ Maitane Azkarate

“Ez zait gustatzen etorkizunean pentsatzea”


I.A.

Ikasten eta lanean dabil Maitane. Hala ere, tarte bat hartu eta gurekin hitz egin du. Dena azken unerako lagatzen omen du, eta gero presaka ibiltzen da; eta gure galderei ere azkar-azkar erantzun die.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Herria polita ipintzeko baino beste gauza batzuetarako erabiliko nuke dirua eta denbora; behar larriagoak badaude eta.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Normalean ez ditut ipintzen, baina jartzekotan surfekoren bat.

- Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?
Pilota partiduak ez zaizkit gustatzen. Gogokoen *Friends* teleaioa dut.
- Pertsonaia higuingarriena? Eta gustukoena?
Higuingarriena Angel Acebes, ez dut agoantatzen; Ronaldinhok, berriz, grazia egiten dit.
- Zerk amorratzen zaitu?
Heriotzaren ostean dagoenaz berba egiteak amorratzen nau; erantzunik gabeko galdera baita.
- Zer estimatzen duzu besteengan?
Umore puntua izatea.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?
Gertuko jendeari.

- Zure bertute bat? Eta akats bat?
Bertutea, gauza gehien aurrean baikor jokatzen dudala. Akatsa, aldiz, dena azken unerako lagatzen dudala.
- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Vaya *Semanitakoek* esaten duten moduan, “hemen ez dago ligatzerik”.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
Idealik ez dago, baina nik gustukoa aurkitu dut.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?
Thailandiara, mutilarekin.
- Etorkizunerako amets bat?
Ez zait gustatzen etorkizunean pentsatzea.



ADINA: 20 urte • IKASKETAK: Giza Zientziak eta Enpresa • ZALETASUNAK: Musika • LIBURU BAT: Ken Folleten *El tercer gemelo* • FILM BAT: *Las horas* • MUSIKA TALDEA: Ramones • KIROL TALDEA: Athletic

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



MINGAINARITIRAKA



Hermi Gomez

MIZPIRUALDE EGOITZAKO LANGILEA

Bost urte daramatza Hermik Mizpirualde egoitzan lanean. Harreran egoten da, jendeari harrera egiten eta telefono deiak jasotzen. Dena dela, urte asko egin zituen Infernukuan, zerbitzari, eta orduko oroitzapen oso politak dauzka.

Harreragilea zara Mizpirualden. Egunean zenbat telefono dei jasotzen dituzu?

Goizez lanean nabillenean dei gehiago jasotzen ditugu, baina ez pentsa, ez dugu askorik jasotzen.

Zer behar da harreragile ona izateko?

Batez ere, jendearekin atsegina izatea; bestalde, beste edozein lanetan bezala, arduratsua izatea.

Ez da erraza izango beti atsegin azaltzea, ezta?

Bada, ez, baina jendeari aurpegi ona jarri behar diozu zu gaizki egonda ere.

Harreman berezia egin duzu egoitzako edadetuekin?

Bai, horixe, baina eurekin harreman zuzenagoa dute beste langile batzuek. Dena dela, benetan, kariñoa hartzen diezu.

Infernukuan zerbitzari ezagutu zintugun askok. Zein lan duzu nahiago?

Tabernako lana polita da eta oroitzapen onak ditut, baina gogorra eta neketsua ere bada, eta aukeran, nahiago dut oraingoa.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Mendira edo zinemara joatea.

Mendi bat?

Urbia.

Film bat?

Million dolar baby, izugarri gustatu zitzaidan.

Euskara ikasten diharduzu. Zer moduz?

Oso zaila da, baina asko saiatzen naiz, eta poliki-poliki geroago eta hobeto noa.

Bizi izateko toki bat?

Donostia; denetik daukalako: itsasoa, mendia eta hiri batek eskain dezakeen guztia.

Eta oporretarako?

Cadiz; behin egon nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Dena dela, Paris ezagutzeko gogoz nago.

Amets bat?

Bakea lortzea; nik asko maite dut Euskal Herria, eta ea, behingoz, bakea lortzen dugun.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA/ Ainhoa Mendibil

SENEGAL / 2002ko abuztuan

Amerikan hainbat aldiz egonda nengoen, eta Afrika ezagutzeko gogoia neukan; gainera, bidaia merkea topatu genuen, eta bost lagun joan ginen. Hila-bete osoa egin genuen hantxe.

Begarar batzuek ezagutzen zuten hango mutil bat, Mar, eta berarekin ibili ginen Senegalen zehar. Gidari lanak egin zizkigun berak.

Etxetan, aterpetxetan eta kanpamenduetan hartu genuen ostatu; kanpamenduetan, jaima edo txabola antzekoetan lo egiten genuen.

Hegaldiak bakarrik geneuzkan alde zurretik hartuta; Dakarrera hegazkinez iritsi eta lehenengo egunean bertan, irla batera joan ginen, Gore irlara, hain justu; Dakarretik oso gertu dago, ordubetera, itsasontziz. Oso irla polita da.

Handik iparraldeko kostaldera joan ginen, Saint Louisera. Oso lehorra da iparraldea. Arrantzatik bizi da jende guztia, eta hondartzak txalupaz eta arrain saltzailez beteta egoten dira.

Saint Louis laga eta Barbariera joan ginen. Mingain formadun lur zati luze eta estua da hori. 200 bat metro izango ditu zabaleran; alde baten itsasoa eta beste aldean ibai zabala ditu. Toki bitxia da, benetan.



“Hegoaldea, Gambia azpiko aldeko lurraldea, gustatu zitzaidan niri gehien; oso berdea da”

“Basarin, barrualdean, indigenak zela bizi diren ikusteko aukera izan genuen”

Handik barrualdera abiatu ginen, Basarira. Inguru hori berdeagoa da, zeharo ezberdina. Hantxe, indigenak zela bizi diren ikusteko aukera izan genuen. Toki ederrak dira eta interesgarria da ikusteko, baina, turismoari begira prestatuta dago dena, eta alderdi hori ez zitzaidun asko gustatu.

Basaritik Senegal hegoaldera joan ginen, Ganbiaren azpiko aldean dagoen lurraldera. Turismoarendako prestatuta daude hango herri asko, baina, turista gutxi ikusi genuen. Badi-rudi horren arrazoia dela toki arriskutsua izatearen fama dela. Lurralde horretan independentzia eskatzen dute batzuek, eta horregatik, gatazkan daude. Militar mordoa dago inguru horretan eta kontrol asko topatu genituen errepidetan. Dena dela, ez genuen aparteko arazorik izan.

Neuri gehien hegoaldeko inguru hori gustatu zitzaidan: oso berdea da, tropikalak.

Ziguinchorren itsasontzia hartu eta Caravan irlara joan ginen. Oso polita da. Gero, Kafuntinen egon ginen, eta handik Dakarrera joan ginen; Gambia gurutzatu genuen horretarako. Dakarretik, berriz, hegazkina hartu eta etxera.

AINZANE IRIZAR



Kostaldean, arrantzatik bizi dira gehienak; hondartzak txalupaz eta saltzaile postuz beteta egoten dira.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g Bergara 943 76 07 92

Logo for NANARRI LAN BERTIKALAK featuring a stylized mountain and a person climbing a building.

- PODAK, TEILATUAK, TXIMINIAK, KANALIOAK, BAJANTEAK, FATXADAK ETA PATIOAK.
- ANDAMIORIK GABEKO LANAK.

Tel.: 676 952 968 680 641 401

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Ze bi kaletan
daude atari
hauek?



Super BM emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSE MARI JAUREGIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.
Zorionak, Jose Mari!
Galderaren erantzun zuzena: **Gesalena baserria.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Pay Pay atuna
Oliba-olioan, 111 gr.

1,29 €

215 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA
**1959ko
kintoak,
jai giroan**

Orain dela 46 urteko argazkia dakarkizuegu oraingoan. 1959ko kintoak ditugu mutilok. Santa Ageda eskean ibili eta hurrengo astean bazkaria egin zuten, batutako diruarekin. Handik gutxira, berriz, 21 urterekin, soldadutza egitera joan behar izan zuten.

Hamaika lagun besterik ez zen Antzuolan 1938an jaiotakoak: argazkiko zortzi mutilak eta hiru neska.

Goian, ezkerretik hasita: Luis Pildain, Jose Mari Garitano, Jose Mari Gabilondo, Sebastian Alberdi eta Jesus Jauregi.

Makurtuta, ezkerretik: Juanito Irizar, Felix Larrea eta Felix Lizundia.

Argazkia: Juanito Irizar



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

FARMAZIEN TXANDA

- EGUBAKOITZA, 3**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- ZAPATUA, 4**
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- DOMEKA, 5**
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 6**
ZABALA. Barrenkalea 25 943 76 16 87
- MARTITZENA, 7**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 8**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUENA, 9**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73


MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildoki okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarretetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta
20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolada (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer iruditzen zaizu erretzaileen aurka hartzen ari diren neurriak?



IÑAKI DIEZ

Erretzailea naiz eta nik neuk ez diet kasurik egiten neurriei eta berdin jarraitzen dut. Gobernuak Tabacalerari debekatu behar lioke saltzea. Ez da logikoa tabernetan tabakoa saldu eta erretzen ez lagatzea.




TRINI OLABARRIA

Ongi iruditzen zait nork bere gunea izatea. Hala ere, erretzaileek irabaziko dutela uste dut; orain ohituta gaude euren gunetara joaten, eta berdin jarraituko dugu, oso aurkako jarrera ez badugu behintzat.



JUANITA OTS

Ongi iruditzen zait. Senarra erretzailea da eta pixkanaka lagatzen ari da; beraz, neurri horien alde nago. Erretzea gustuko dutenek izan dezatela toki bat euren dako, eta batez ere errespetua erretzen ez dutenekiko.



BERNABE MANIEGA

Nik egunean ia bi pakete erretzen ditut, baina erretzaileak ez direnak errespetatzen ditut. Gustuko dut taberna kafetxoa hartu eta purua erretzea, baina neurriak ipintzea badituzte, bete egin beharko ditugu.



IZARO APERRIBAI

Erretzaileen aurka baino gehiago, tabakoaren kontrako neurriak hartu behar lirarteke. Zaila da jakitea zeinek duen lehentasuna, erretzaileak edo ez erretzaileak. Egokia iruditzen zait erretzaileendako gune bat egotea.



AINHOA MUXIKA

Ez naiz erretzailea, baina ongi iruditzen zait neurriak hartzea. Tasak igo egingo dituztela entzun dut, baina erretzaileek gerora ere tabakoa erosten eta erretzen segituko dutela uste dut; ez da neurri aproposa.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZUZENKETA Joan zen astean kaleratutako kexa dela eta Mankomunitatek dei bat jaso dugu. Haren esanetan, kartoiak edukiontzien kanpoan lagatzeak badu arrazoi bat: kanpaina berezia egin dute merkatariei zuzenduta, kartoiak edukiontzi urdinetan sartu beharrean kanpoan lagatzeko, bestela berehala beteko lirarteke eta. //A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Bi kontestu hauetan bakarrik erabiltzen da:
Lana senper ein eta senper ikusi edo gorriak ikusi.
—Lana senper ein bakozi aurten titutlua etara nahi bozu. JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“ Ni irabazle irtengo garelakoan nago. Ilusioz betetako proiektua da, eta nik uste dut jendearen

laguntza duela eta aurrera aterako dela. Soziologikoki, inkestek horrela diote, zaleen gehiengoa gurekin dago; baina merkatuak esaten du pisuzko akziodunak behar direla aurrera egiteko eta horretan gabiltza orain lanean. Gure proiektuaren lehen ardatza da Realaren egoeraren diagnostiko objektibo bat egitea. Izan ere, zurrumurru eta morbo gehiegi dago honen inguruan. Gauza batzuk argi daude, adibidez, Realak ezin du Real Madridek edo horrelako talde handiek duten egitura eduki, langileei dagokionez”

JUAN JOSE ALVAREZ / Denon Erreal plataformako kidea 'Asteleheneko Goienkaria' / 05-05-30

BERAIEKDIÑO/ Jon Suinaga



Iruzurgileak

Azkenaldian sari pila bat irabazi ditut. Azken urtean, adibidez, Veneziara bidaia bat, gutxienez 50.000 euro, bi telebista, auto bat, eta gehiago oparitu dizkidate. Behintzat hori agertzen da bidali dizkidaten eskutitzetan: “Zeu zara gure sari nagusienaren zorieko irabazlea” edo antzerako testuak agertzen dira letra handietan. Jarraian testu mordoia letra txiki-txikian.

Gaur egun, ez dut sari bakar bat ere jaso, eta badakit sekula ez direla ailegatuko. Letra kokor horretan beti jartzen du, ezkutatuta, saria zurea izango dela zozketa bat irabazten baduzu edo antzerako tranparen bat. Eta hori bai, bere katalogo ultziren eskaera batekin erantzuten baduzu.

Enpresa horiek hilero bonbardatzen gaituzte euren promozioekin. Nahiz eta inoiz ez eskatu euren informazioa bidaltzeko, baina auskalo nondik lapurtu dituzten

datuak, eta inongo baimenik gabe hasten dira postontziak gainezkatzen.

Aspertuta, korrespondentzia gehiago ez bidaltzeko telefonoz deitu nuen. Eskutitz ziaratu bat bidaltzeko erantzun zidaten. Nik: “Ezer ez egin gabe alta eman didazue, mesedez ba-

“Iruzurgileak ilusioz baliatzen dira publizitate engainagarria erabiliz jendea iruzurtzeko”

ja eman zeren eta ez dut nahi denbora eta dirua gastatzerik baja emateko”. Haiek, ezinezkoa dela, idatziz eskatzeko. Nik, kopeta behar dela... Azkenean pelotera telefonikoa, eta hurrengo hilabeteetan postontziak euren paperekin beteta jarraituko du.

Batzutan sari bat irabaziko dugula eta bat-batean aberats bihurtuko garela amesten dugu. Iruzurgileak, ilusio horretaz baliatuz, publizitate engainagarria erabiltzen dute jendea iruzurtzeko. Ia ezinezkoa da hain sari handiak jasotzea, baina jende asko tentaldian erortzen da.

Beno lagunak, banoa korrika bonolotoa egitera, aste honetan botea dago eta!

HAUGIROA!

MINIMOA
Egubakoitza, 27 **35 °C**

MAXIMOA
Eguaztena, 15 **9 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
6,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 25	32 °C	9 °C	- l/m ²
Eguena, 26	34 °C	11 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 27	35 °C	12 °C	- l/m ²
Zapatua, 28	20 °C	14 °C	- l/m ²
Domeka, 29	20 °C	15 °C	6,4 l/m ²
Astelehena, 30	19 °C	14 °C	- l/m ²
Martitzena, 31	21 °C	10 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERRIGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA

Edu Mendibil

ERREDAKZIOA

Aintzane Irizar
Iratí Agirreazaldegí
Oihana Elortza

MAKETAZIOA

Maitena Arana

PUBLIZITATEA

Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK

Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA

SS-50/91

ISSN

1130-6599

TIRADA

8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a / 346. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Aitz-Garbi itxi ondoren, zortzi taberna eta jatetxe geratuko dira

AINTZANE IRIZAR

Ekainean erretiroa hartuko dute Juanitok eta Angelitak. Orain dela 21 urte zabaldu zuten Aitz-Garbi. Horrela, inork taberna hartzen ez badu, itxi egingo dute. Kasu horretan, zortzi taberna eta jatetxe geratuko lirateke herrian.

Mox, Larrea, Gorosti, Surpe, Ongi-Etorri, Gailur, Okaldi eta Leku-Berri. Horiexek dira, Aitz-Garbi itxekotan, herrian geratuko zaizkigun taberna eta jatetxeak. Bestalde, Altxarteko kafe-tegia eta Martin okindegikoa ere hor ditugu.

Ekainean erretiroa hartuko dute Juanito Lizundiak eta Angelita Enak. Hortaz, laga egingo dute Aitz-Garbi. Dena dela, oraindik ez dakigu taberna itxi egingo duten; izan ere, bertako nagusiek nahi dutena da beste norbaitek hartzea tabernaren kargua.

21 URTEKO TABERNA ETA JATETXEA

Orain dela 21 urte zabaldu zituen ateak Aitz-Garbik. Ordutik hona makina bat tragoxka, kafe, bazkari eta afari atera dituzte Juanitok eta Angelitak. Euren alabak izan dituzte tabernako lanetan laguntzaile. "Pena pixka bat ere ematen digu", aitortu digute; dena dela, "aurrerantzean lasaiago bizi izateko aukera izango dugu", gaineratu digute.

Eguneroko bezero fidelek igarriko dute Aitz-Garbiko nagusien hutsunea; eta taberna ixten badute, baita tabernarena ere.

TABERNA UGARI ITXI DITUZTE

Geratuko zaizkigun taberna eta jatetxeek gain, garai batekoak ere hortxe ditugu. Ondarrekoa dugu ezagunenetako bat; mende hasierakoa zen taberna hura, eta 1968an itxi zuten.

Antiguan ere bazegoen beste bat, Caserio, hain zuzen ere. Hori orain dela urtetxo batzuk itxi zuten. Beheko auzoan, berriz, Rioja taberna genuen, Peñalba familiarena, orain Mox dagoen tokian. 1965ean zabaldu eta 1990ean itxi zuten. Urte hartan,



Juanito Lizundia eta Angelita Ena, Aitz-Garbi tabernan. Ekainean erretiroa hartuko dute.

"Pena pixka bat ere ematen digu, baina aurrerantzean lasaiago bizi izango gara", aitortu digute

berriz, Mox taberna jarri zuen hantxe Pakok.

Hor daukagu Santiaonekoa edo Arin ere; taberna eta jatetxea. Aurreko mende hasierakoa zen, eta ez ziren nolana hango txuletak. Inguruko herrietatik ere jende asko etortzen zen txuletak jatera. 1991n itxi zuten. Harrezkero, hainbatek hartu du jatetxearen kargua, baina azkeneko bi urteotan itxita dago.

Beheko errotan ere antzuo-

Orain dela 21 urte zabaldu zuten Aitz-Garbi Antzuolan; ekain amaieran itxiriko dute

larrak, bergararrak eta inguruko herrietako jende asko elkar-tzen zen. Zenbat afari-pasada egin ote ditugu han antzuolarrok! Orain dela 40 bat urte ogitarte-koak ematen hasi ziren, baina handik bost bat urtera jantokia egokitu eta merendero moduan jarri zuten. Orain dela 14 bat urte itxi zuten.

Pikunieta baserrian ere egon zen taberna garai baten. Herri-tar batzuek esan digutenez, 30

Ondarrekoa, Rioja, Beheko Errotakoa, Caserio... Taberna eta jatetxe asko itxi dituzte

urtetik gora izango dira taberna hura itxi zutela.

Ixoaneko denda, azkenik, taberna ere bazen. Denda orain dela hamar bat urte itxi zuen Pilarrek, baina 15 bat urte lehenago laga zion taberna izateari Buztinzuriko denda horrek.

Uzarragan bertan ere egon zen taberna; gaur egun ere, jaie-tan eta bestelako ekitaldiak dau-denean, pintxo goxoak eta tra-goxxak ateratzen dituzte.

LABUR

Gurutz Larrea Gipuzkoako txapeldun

Martitzenean jokatu zituzten Gipuzkoako erlojuaren kontrako txapelketak, Legorretan. Hantxe, gazteen mailako lasterketa Gurutz Larrea Sumofic taldeko txirrindulari antzuolarrak irabazi zuen. 23 kilometroko ibilbidea egi-teko 26 minutu eta 6 segundo behar izan zituen.

Mundumira jaialdiko kamisetak salgai

Ekainaren 10ean, 11n eta 12an Arrasaten ospatuko den Mundumira jaialdiko kamisetak salgai jarri dituzte Antzuolan. Eskolan eta Udal Liburutegian dago kamisetok erosteko aukera, 20 euroren truke. Hiru egunotan hainbat kontzertu, antzerki emanaldi, eta abar izango ditugu.

Lore lehiaketarako deialdia egin dute aurten ere

Urtero bezala, Udalak saria emango die euren balkoi eta leihoak dotoreen apaintzen dituzten herritarrei. Aurten, baina, aldaketa bat dago lehiaketan; izan ere, 90 euroko bi sari emango dituzte, baina alde zaharra eta berria bereiztu gabe. San Juan bezperan banatuko dituzte sariak.

Udako kirol kanpaina abian jarri du Udalak

Uztailean hainbat kirol jardueratan parte hartzeko aukera eskaintzen du Udalak: patinaje, gimnasia, aerobik eta erretiratuendako gimnasia ikastaroak antolatuta dituzte, besteak beste. Ekainaren 17ra arte egongo da izena emateko aukera, udaletxean edo liburutegian. Argibideak 943 76 62 46 telefonon.

KULTURA

'Zinea izarpean' programaren barruan, sei film ikusteko aukera, gaurtik, egubakoitza

A.I.

Iaz jarri zuen abian Udalak *Zinea izarpean* programa. Erantzun ona izan zuela ikusita, aurtien ere ekimen hori martxan jartzeko erabakia hartu dute; gaur, egubakoitza, hasita, guztira, sei film ikusteko aukera izango dugu ia egubakoitzero, frontoi txikian.

Udalaren helburua ekimen honekin da herrian dagoen kultura eskaintza zabaltzea eta uda parteko gauetan, gazteei eta helduei ekimen ezberdin baterako aukera eskaintzea. Gainera, kontuan hartu behar dugu herrian ez dugula zinema aretorik, eta zinemari dagokionez, dagoen bakarra dela umeendako emanaldiak, neguko hilabeteetan.

SEI FILM EKAIAN ETA UZTAILEAN

Esan bezala, gaur, egubakoitza, ikusi ahal izango dugu lehen filma, frontoi txikian; emanaldi guztiak 22:30ean izango dira.

Gaur, Brad Bird zuzendaria-
ren *Los increíbles* ikusteko aukera izango dugu. Datorren egubakoitzean, hilak 10, Alejandro Ame-



Los increíbles filma eskainiko dute gaur gauean, 22:30ean, frontoi txikian.

narrek zuzendutako *Mar adentro* filma eskainiko digute; ekainaren 17an, berriz, Miguel Courtois-en *El lobo*.

Uztailean beste hiru emanaldi egingo dituzte, *Zinea izarpean* programaren barruan: hilaren 17an, *Alejandro Magno*, hilaren

8an *Los chicos del coro* eta 22an, azkenik, *Amelie*. Helduei eta gazteei zuzenduta daude filmak eta sarrera doakoa izango da.

HERRITARRENHITZA/Alaitz Jauregi · Ikaslea

Sekula be ez konforme

Sekula fijatu zarete bizi guztia kejava ta kejava pasatzen dogula? Aurten, adibidez: giro txarra egin dabela, negu gogorra eduki dogula, ixa hotzak gogortu garela... Danok berotasuna sentitzeko desiatzen. Ailegau da, ba, beruoi, ta orain berogi dagola, berriz, hau ezin dala aguantau! Halamoduzkua egitten dabeanian, geizki orduan be, erdiz purdikua dagolako! Eurixa egitten dabeanian hainbeste humedadekin nekatu garelako, ta ez dabeanian egitten lehortia datorrelako.

Lanakin be iguala pasatzen da: lana daukuanian, puf! egune-

ro lanera jun biharra, goizian goiz jai-ki, 8 ordu ta gero kriston buruko minarekin irten... Beti oporrak ailegatzeko desiatzen. Lanik ez daukana berriz ipurterre ipurterre, denboria zela pasau as-
mau ezinda, dirurik ez daukalako amorratzen, lana topau nahixan... Ikusten?

Beste adibide bat ipiniko dotzuet: zenbat aldiz tokatu jaku kamioiren bat bidian pare-



"Konforme ez bagare geuk egin bihar dogu ahalegina"

hainbeste zubi ta dauzken alturekin zeruan goiatzela

parian ta mala letxe ederrarekin berandu ailegatzia? Edo karabanan egon biharra? Edota bidien egoera txarragaittik sustoren bat eroatia? Danok bizi izen dogu horrelako egoeraren bat.

Ba, bide berri-
ren obrak eta proiektuak darenian, bateko obren traba, mendi barik laga bihar gaittuela,

emuten dabela, segittuan izozten diela ...

Telebisinuan ganorazko ezebe ez dabela jartzen, dana kotilleuak eta gaizki esan biharrak direla, daukagun bizitza ritmuagaittik aldamenekua be ez dogula ezagutzen...

Sekula be ez gustora: politikakin, ekonomixiakin, gaur egungo gizartiakin... Baina, geuk sortu dogun errealidadia da! Argi ta garbi eduki bihar doguna da konforme ez bagare ta aldatzia nahi baldin badogu, geuk egin bihar dogula ahalegina ta ez almanenekuak egitteko zain egon.

LABUR

Erretiratuen irteera, Urkiolara eta Gasteizera

Ekainaren 13an, astelehena, irteera egingo dute herriko erretiratuek. Lehenengo Urkiolara joango dira, hango santutegira. Goiza han pasatu ondren, Ulibarri Ganboako urtegiaren ertzean dagoen Urbazter jatetxean bazkalduko dute, eta arratsaldean, Gasteizko Boulevard merkatal zentroa ikustera joango dira. Txartelak hartzeko aukera egongo da hilaren 9a eta 10a, 18:00etatik 19:00etara. 25 euro kostako da irteera.

Antzuolako neska gimnastak Euskadiko txapeladun

Aurreko asteburuan, Euskadiko gimnasia erritmikoko txapelketak jokatu zituzten, Gasteizen. Hantxe, Antzuolako A mailako alebinek (Eukene, Amaia, Onintza, Ane eta Jone) urrezko domina irabazi zuten. Infantil mailan ere urrezko domina lortu zuten, Ipintzakoe; talde horretan dihardute Usoa eta Lide Toledok eta Jurdana Pildainek. Bakarka, berriz, Usoak bigarren postua lortu zuen.

Maiatzaren 21ean, berriz, Gipuzkoako finala jokatu zuten B mailako alebinek, eta hirugarren sailkatu ziren: Izaskun Fernandez, Alaitz Urkiola, Josune Cantero, Nagore Etxezarreta eta Jennifer Pineda.

Uxue Arregi lehen postuan, gimnasia erritmikoan

Aurreko asteko KONTUOLAn jakinarazi genizuen Antzuolako gimnastek lan bikaina egin zutela eskola arteko Gipuzkoako txapelketan. Albiste horretan Uxue Arregik egindakoaren informazioa falta zen; gazteen mailan, mazedekin eta zintarekin, lehen postua lortu zuen antzuolarrak.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko ekainaren 3a / 229. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Ludotekak ateak itxi zituen martitzenean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Abendua ezker irekita egon ostean, martitzenean, hilaren 31n, itxi zituen ateak ludotekak. 26 ume ibili dira bertan, Nagore Ojanguren begiralearekin. Orain, Udala aztertzen ari da zein premia dagoen herrian ludoteka izateko, eta eskaririk ba ote dagoen.

Kultura etxean dago ludoteka, eta abenduaren 13an zabaldu zutenetik bost hilabete eta erdi irekita egon ostean, maiatzaren 31n itxi zituen ateak. Azken eguna zela eta bertako umeek merienda izan zuten.

Ludoteka ireki zenean maiztzer arte zabalik egoteko konpromisoa hartu zuten, dirulaguntza batzuk tarteko zirela; orain, ordea, ez dute laguntza hori berriz jaso, eta horren ondorioz itxi egin dute. Udala aztertzen ari da zein premia dagoen ludotekari dagokionez, eta horren arabera erabakiko dute aurrerantzean zer egin.

UMEAK ETA ARDURADUNA, GUSTURA
Nagore Ojanguren ludotekako arduradunak penaz utziko omen



Ludotekako azken egunean merienda izan zen umeendako.

du. 2 eta 9 urte bitarteko 26 ume eman zuten izena, eta elkarrekin ongi moldatu direla esan digu. Eskulanak egin dituzte eta batez ere jolasean ibili dira.

Jon, Gaizka, Adrian eta Jon ere oso pozik ibili dira ludotekan. "Eskulanak egitea izan dugu gustuko; eta berriz zabalduz gero, gu behintzat etorriko gara".



Jaunartzea lau neska-mutikok

Argazkiko lau neska-mutikok Lehen Jaunartzea egin zuten joan zen domekan parrokan. Aspaldiko partez talde txikia elkartu da aurten jaunartzerako. Juan Kruz Juaristi apaizarekin batera agertzen dira erretratuan Adrian Fajardo, Uxue Larrea, Ainhoa Azkarragaurizar eta Argider Txurruka. Gurasoekin kristau ikasbideko eskolatan prestatu eta elizkizunean hainbat irakurgai eta kantu egin zituzten. Ondoren, familia giroan ospatu zuten egun berezia./I.A.

LAPURRETAK

Lapurrak sartu dira Pagatzako enpresetan

IRATI AGIRREAZALDEGI/MAIDER ARREGI

Elgetako lau enpresetan lapurretak izan ziren domeka goizaldean. Pagatza poligonoko Iraunkor, Alfa-Deco, Suministros Elgeta eta Elkoro Dekoletajeak enpresetan sartu ziren lapurrak.

Ustez hiru pertsona sartu ziren, eta elkarren ondoan komunikatuta dauden enpresetan lapurtu zuten. Lantegi batzuetan teilatutik sartu ziren, eta horman zuloa eginda beste batzuetan.

KALTE EKONOMIKO HANDIAK

Enpresek dagoeneko ipini dute salaketa. Alfa-Deco, Iraunkor eta Elkoro Dekoletajeak enpresetan kalte ekonomikoak izan dira. Sakelako telefonoak, eskuko ordainagailuak, dirua eta bidaia-txekuek lapurtu dituzte. Suministros Elgetan, berriz, nahastu baino ez dutela egin esan digute.

Ertzaintza oraindik ikertzen ari da lapurretak nola gertatu diren eta baita kalteak zenbatekoak izan diren ere.



Aurten ere giro aparta egongo da Salbadorko jaietan.

LABUR

'Zure etxebizitza aurkitu' eta 'News' ikastaroak izango dira ekainean Kzgunean

Ekainean bi ikastaro izango dira Kzgunean. Lehenengoa ekainaren 8an, 16:00etatik 17:00etara, *Zure etxebizitza aurkitu* izenburupean. Bertan, sareak etxeak saldu eta erosteko ematen dituen aukerak irakatsiko dituzte. Bestalde, ekainaren 22an, 18:00etatik 20:00etara, Interneteko *News* zerbitzua nolako den eta zertarako balio duen aztertuko da. Bi egun horietan tutorea egongo da Kzgunean. Gai nontzean, gela zabalik egongo da astegunetan, 16:30etik 20:00etara.

Urbeltzen 'Dantza ganbara' saioa izango da bihar arratsaldean Espaloia aretoan

Bihar, zapatua, Urbeltzen *Dantza ganbara* saioa izango da Espaloian, 18:00etan. Edozeinek parte hartzeko dantza jaiak da; beraz, ez da beharrezkoa dantzari trebea izatea. Izan ere, saio horrek publiko zabalari euskal dantzak hurbiltzea du helburu. Juan Antonio Urbeltz folklorista ospetsuak gidatuko du saioa, musikariek laguntzaz. Sarrera doan izango da.

ELKARRIZKETA

PATXI MONTERO/NEKAZARITZA INGENIARI TEKNIKO

“Elikadurak uste baino gehiago eragiten du ingurumenean”

I.A.
Aste Berdea dela-eta hainbat ekintza antolatuta dituzte. Tartean, elikaduraren eta ingurumenaren gaineko hitzaldia. Nekazaritza ekologikoaren gaia gustuko du Patxi Monterok, eta horretan dihardu lanean.

Zer dela-eta hitz egin duzu elikaduraren eta ingurumenaren gainean?

Hitzaldi gehienetan ingurumenaren egoeraz, kalteez, berotegi efektuaz, aldaketa klimatikoaz, zaborrez... hitz egiten da. Kanpora begiratzen dugu errudunen bila: industria, azpiegiturak, kutsadura... Kanpora begiratu beharrean pentsatu behar da norberaren eguneroko ohiturek zein aztarna ekologiko lagatzen duten. Horregatik hitzaldiaren ardatza izan zen eguneroko oinarriko ekintza bat: jatea.

Zertan eragiten dio elikadurak ingurumenari?

Elikadurak ingurumenean duen eragina pentsatzen dena baino altuagoa da. Elikagaiak

ekoiztu eta banatzeko sistema energetikoki defizitarioa da. Energia gehiago gastatzen da jaten denean ematen duena baino. Hori azaltzeko janariaren gaineko datu asko eman nituen: zenbat energia kostatzen den elikagai bat edo bestea ekoiztea; nola den ezberdina produktu baten salneurria eta berez duen balio energetikoa; zenbat energia behar den ekoizteko. Gastu energetiko hori planetak nabaritzen du.

Munduan Euskal Herrikoa besteko kontsumoa balego bizitzeko bi planeta eta erdi behar-ko lirakeela entzun dugu. Hainbeste kontsumitzen dugu?


Bai. Inkontzienteki egiten dugu, gurpil zoro baten barruan gaudelako. Herri garatuan gaudela, kapitalismoaren mende. Egiten duguna normala da guretzat,

“Ezberdina da produktuaren prezioa eta bere balio energetikoa”

baina planetarendako jasanezina da. Gauza bera gertatzen da janariarekin. Janariaren atzean ezkutuak kostuak daude. Esaterako, supermerkatuan kanpotik ekarritako lata bat merke erosten dugu; baina prezio horretan ez dira sartzen produktua kanpotik ekartzen gastatu den erregaia-aren balioa, horrek sortutako kutsadurak eragindako osasun gastuak edo kutsadura horri aurre egiteko egunen batean gastatu behar den diru publikoa ere. Horiek guztiak kontuan hartuko bagenu, beharbada gure aukerak aldatu egingo lirakeke.

Kontsumo arduratsurako zer hartu behar da kontuan?

Kontsumitzaileok aukeratzen dugunaren arabera produktuak merkatuan iraugo du edo ez. Aukeratzekoan gure buruari hainbat galdera egitea da gakoa. Galdera horietako batzuk izan daitezke: zein eragin sortu du produktua ekoizteak ingurumenean eta produktua ekoiztu den gizartean?; zein iraupen du?; zein hondakin sortuko du?; zein lan baldintzatan ekoiztu da?; zenbat gastatu da garraioan?...



GOIENKARIA

Hitzaldia Aste Berdearen baitan antolatu da. Horrelako jardunaldiek izaten dute eraginik jendearengan?

Norberak jokatu du bere usteen arabera; baina gauza baterako balio dute: eztabaida pizteko eta kontzientziak astintzeko.

HERRITARREN HITZA/ Beatriz Zabalondo · Itzultzailea

Atsegin printzak

Uda ataria, festa usaina, eguraldi ona... Ikasturtea amaitzera doa. Nekea nabari da ikasle eta irakasleengan. Azken ostikoak jotzen gabilta denok. Asti gutxi eta, aukeran, egiteko askotxo: Hori izaten da urte sasoi honetako negarra. Karga.

Aurten, lehenengo aldiz, ia hogeita hamar laguneko talde baten ibilbidea jarraitzeko beta izan dut Eskoriatzako fakultatean. Joan zen irailean ilusioz bete-beterik nola ezagutu nituen gogoan izan dut askotan; neguko egun ilunetan, batez ere.

Batzuetan, gaiarekin asmatzen zail zela ikusita,

haien lekuan jartzen saiatu naiz: lorpen txoren baten esperantzan. Hurrengoan, serio jarri eta mutur beltza erakustea ere tokatu da. Noiz eta nola egokitu jakiten ez da erraza: geu ere beti ikasten baika-biltza. Denen gustua egitea, berriz, ia ezinezkoa.

Halere, miragarria izan da ikustea aurrera-aurrera nola egin duten, bakoitzak bere pausoa, bakoitzak bere izaerarekin,



“Norberari gainezka egiten dio neska-mutil horien grina sutsua ikusteak”

bere bizipenekin. Lagun taldeak nola osatu diren, elkarri laguntzeko beti prest. Niretzat poz handi bat izan dira, eta kutsagarria haien iji-aja, irri eta txantxak. Norberari ere gainezka egiten dio neska-mutil horien grina sutsua ikusteak. Zeinek baretu sentimendu jario hori! (Beharrik ere ez, gero!).

Azken egunak bista-bistan ditugu: batzuek besteek baino lan gehixeago dute.

Bakoitzak daki bere berri. Zortzi hilabete hauetan lan asko agindu zaie, eta asko egin dute. Baina urtean-urtean zaildu beharko dute, eta lantzean apur bat gehiago eskatuko zaie.

Etorkizunak ez baitie errukirik erakutsiko. Eta prestatuta egongo direla bermatzea izango da gure apustua.

Akordatzerako, hiruzpalau urte barru han-hemengo postuetan ikusiko ditugu; orduan, edonoiz ekarriko dugu gogora irail eguzkitsua izan zen hartako jakinguraz beteriko begi haien distira.

KIROLA

PARTIDUAK

ARETO FUTBOL TXAPELKETA (FINAL ERDIAK)

Ekainak 4

16:00: Añiketan-Makanaki Vicios

17:00: Vicios-Isspro Añiketan

PILOTA (FINAL LAURDENAK)

Ekainak 3

21:00: Beroiz-Iturrioz (Kadeteak)

Gero: Garralda-Ildoate (Kadeteak)

Gero: Lasa-Apezetxea (23 urtez azpikoak)

Gero: Urrizelki-Baez II (23 urtez azpikoak)

Ekainak 4

18:00: Mendizabal-Aurtenetxe (Kadeteak)

OSMA
PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salbador kalea 19 behea • 20690 ELGETA
Tel.: 943 768 127
Mobila: 677 032 739

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a / 9. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

ELKARRIZKETA

MIREN ARENTZANA/ARTISTA

“Divergentes proiektuak enpresa eta artea bateragarriak direla erakusten du”

OIHANA ELORTZA

Berrikuntza teknologikoaren eta artearen sormenaren arteko zubia da Divergentes programa. Nazioarteko artistek Euskal Herriko enpresetan egin dituzte artelanak eta Zumaian erakutsi dituzte. Bilboko Miren Arentzanak zubi bat argiztatu du Ulma Polimerorekin.

Nolako zubia egin duzu?

Zumaia erdian dagoen zubia da. Pertsona bat zubia pasatzera doanean, sentsore batzuek antzeman egiten dute pertsona hori eta zubia argiztatu egiten da. *Sorgin zubi* izena jarri diot izena artelan honi.

Nola argiztaten da zubia?

Zubiaren aurrealdean eta pasabidearen bi izkinetan hemen landutako materiala jarri dut. Pertsona bat zubia igarotzera doanean, argi deskarga bat jasaten du zubiak eta zubia argiztatu egiten da. Egunez kolore grisa izan-

go du, baina ilunetan erabat argiztatuta ikusten da. Itsasgora dagoenean, gainera, uretan ere islatzen da *Sorgin zubi*.

Polimeroa erabili duzu zubia argiztatzeko?

Argiarekin lan egitea oso gustukoa dut, baina ez argindararekin, material ezberdinen bidez lortzen den argiarekin, baizik. Lan honetan erretxinaren pigmentuak polimeroan aplikatu ditut eta material hori da, hain justu, zubia argiztaten duena.

Zaila da imajinatzea artista bat bere artelana enpresa baten barruan egiten. Zer

“Erretxinaren pigmentuak polimeroan aplikatuz, Zumaiako zubia argiztatu dut”

moduz ibili zara zu Ulma Polimeron lanean?

Hemen ez da ohikoa, ez, baina atzerrian bai. Bilboko baina Londresen bizi naiz, han lan egiteko askoz aukera gehiago dugu eta. Diseinuzko artelan asko egin ditut hango enpresetan.

Ulman, bestalde, oso pozik egon naiz. Apirilean hasi ginen lanean eta denbora askorik ez eduki arren, oso gustura gelditu gara guztiok lanarekin.

Enpresak eta artea ez dira askotan batera ikusten hemen.


Ez, baina Divergentes proiektu honek hori posible dela erakusten digu.

Hiru hilabetez egongo da ikusgai zubia Zumaian.

Bai, gainerako bederatzi artisten lanean batera. Lan denak daude Zumaian zabaldua: pertsona gerturatzen denean ura botatzen duen iturria, airean hazten diren tomate landareak edo mundu guztiko eguraldi datuak batzen dituen lan bat, adibidez.



Ulma Polimeron egin du bere lana Miren Arentzana artista bilbotarrak.



26 lorontzi jarri dituzte plazan

Lorontziak jarri dituzte plazako arkupeetatik zintzilik, udaletxeko arkupeetatik izan ezik. Guztira 26 lorontzi berde jarri dituzte, eta 15.600 euro kostatu dira.

Bi lore klase jarri dituzte lorontzi horietan, eta tartekatuta egin dituzte: batzuetan geranio frantses gorriak jarri dituzte eta bestetan surfinia zuriak. Bi lore mota horiek goitik behera erortzekoak dira eta hazten doazen neurrian, lorontzi berdea tapatuko dute. Joan den egubakoitzean jarri zituzten.

LABUR

Soziedad Alkoholika eta Amonal taldeek kontzertua dute gaur gauean Gaztelekuan

Bi taldek joko dute gaur, egubakoitza, Gaztelekuan: Soziedad Alkoholika talde gasteiztarrak eta Oñatiko Amonal taldeak. Atzeko kaleko jai batzordeak eta Oñatiko Gazte Asanbladak antolatuta dute kontzertu hori, eta Soziedad Alkoholika eta Amonal taldeak igoko dira eszenatoki gainera. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarretarak Gaztelekuan bertan egongo dira salgai bost eurotan.

Korri, Xalto eta Brinko pailazoez ikuskizuna egingo dute domekan herriko umeendako

Korri, Xalto eta Brinko pailazoez ikuskizuna egingo dute domekan Laixanek gonbidatuta. *Kantari diskoaren aurkezpen mundiala* da ikuskizunaren izena eta hiru pailazoez umeekin batera egingo dute ikuskizuna. Pailazoetako batek itxura aldatzen du sarri eta Trapujale, Marinazkane sorgina eta Zabarre bihurtzen da. Zozketak, abestiak, dantzak eta kanta txoroak ere izango dira. Santa Anan izango da, arratsaldeko bostetan.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta ORBEGOZO etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.




BERME 2 URTE
1.460
X
550
X
590 mm

HOZKAILUA 2FA255
255 €42.428 pta



BERME 2 URTE
1.850
X
598
X
590 mm

HOZKAILUA COMBI 2FAC495
375 €62.394 pta



BERME 2 URTE

500/800
b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383
291 €48.418 pta



BERME 2 URTE

650/1.000
b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163
345 €57.403 pta



BERME 2 URTE

1.000 b/min

GARBIGAILUA 4L104
294 €48.917 pta



TELEBISTA SHARP
LCD, 26" LC-26GA5E
999 €166.220 pta



TELEBISTA PHILIPS
LCD 26" 26PF-4310
999 €166.220 pta



BERME 2 URTE

LABEA
H2-1401BN
BITROZERAMI-
KA

LABEA eta BITROZERAMIKA
298 €49.583 pta



BERME 5 URTE

AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA
290 €48.252 pta



BERME 2 URTE

AIRE GIROTUA ADR 66
275 €45.756 pta

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

OSASUN FAMILIA, A ETA D EREDUETAN

TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Zaharren egoitzetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:

Ekainaren 1etik 8ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Ekainaren 30etik uztailaren 6ra (biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g 20700 Urretxu • Tel: 943 72 14 03 • Faxa: 943 72 14 13
Posta elektronikoa: jmiparragirre@edunet.es • www.iparragirre.net

KUTXA

“Etxebizitza erosi edo saldu gura duenak aholkularitza zerbitzua eta laguntza ditu”

Etxebizitza erosi edo saldu behar duten guztien interesekoa izango den aholkularitza zerbitzu paregabea eskaintzen du Kutxak. Salerosketari hasieratik bukaraino jarraituko dion zerbitzua da, abantaila guztien berri emanaz, eta norberari egokitutako aholkurik onenak eskainiz. Itziar Irazusta da Kutxako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria.

Zer da Kutxako Etxebizitza Zerbitzua?

Etxebizitza erosi edo saltzeko asmoa duten pertsona guztiei zuzendutako zerbitzua da. Salerosketa prozesu osoan laguntzeko asmoz sortu zen.

Zergatik eskaintzen duzue?

Etxebizitza baten salerosketa pertsona edo famili bizitzako finantza operazio garrantzitsuena izaten da. Gutxitan errepikatzen den operazioa da, eta kontzeptu berri eta ezezagun asko sortzen dira. Arrazoi hau dela eta, Kutxan oso konprometitu sentitzen gara egoera horretan dauden pertsonen prozesu osoan kalitateko aholkularitza zerbitzu bat eskaintzeko.

Zer nolako aholkularitza eskaintzen duzue zerbitzu honen bitartez?

Kutxan, bi helburu ditugu:

Batetik, bezeroaren neurria finantziario proiektu bat eskaintzea. Hala, finantza entitateak, historikoki, finantziarioako bi aukera eskaini ditu: interes finko edo aldagarriko maileguak. Gaur egun berriz, Kutxan finantziario mota asko dauzkagu bezeroak berak aukera dezan gehien egokitzen zaion produktua.

Eta bestetik, bezeroak salerosketagatik daukan abantailen berri izan dezala:

Salerosketa bakoitza erabat desberdina da, eta pertsonak lortu ditzaketen abantailak ere bai. Adibidez, babes ofizialeko, bigarren eskuko edo lehen eskuko erosketetan zergak desberdinak dira. Beraz, norberari egokitutako azterketa egiten diogu bezeroari, bere egoera ezagutu eta zerbitzu personalizatua eskaintzeko asmoz. Adibide moduan, aholkularitza fiskalean arreta handia jartzen dugu.

Zer ulertu behar dugu aholkularitza fiskala esanda?

Salerosketarekin batera, etxebizitzaren eta titularraren ezaugarrien arabera, ordaindu beharreko zergak desberdinak dira. Kutxan horren gaineko informazio guztia ematen diegu, bezeroek eskura dituzten abantaila guztien berri izan dezaten.



Itziar Irazusta, Kutxako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria.

“Kutxan finantziario mota asko dauzkagu bezeroak berak aukera dezan gehien egokitzen zaion produktua”

“Kutxan, banakako estudioa egitea oinarrizkoa ikusten dugu, abantaila guztien berri emateko”

Horretaz gain, Haziendak etxebizitzaren erosketagatik deduzitzeko aukera ematen digu. 30.000 € baino gehiago buelta diezaguke urtero egiten dugun errenta aitropenaren bitartez. Abantaila hauek aprobetxatzen has gaitzke etxea erosi baino 6 urte lehenagotik. Beraz, hurrengo urteetan etxea erosteko asmoa dutenek aukera izan dezakete deduzitzen hasteko.

Ondorioz, Kutxatik banakako estudioa egitea oinarrizkoa ikusten dugu, abantaila hauen guztien berri emateko eta bezeroak operazio guztian gure laguntza eta babesa eduki dezan.

Jendeak finantziarioa behar izaten du. Zer nolako mailegu motak eskaintzen dituzue?

Gaur egun, produktua pertsonaren arabera diseinatu dugu. Aukera ugari ditugu eta bezeroa da norberari egokien datorkion produktua aukeratzeko duena. Interes mugikorrek interes finkorako maileguak eskaintzen ditugu. Lehenengo kasuan, maileguaren kuota aldatu egingo da merkatuaren interesen eboluzioaren arabera. Bigarren kasuan, berriz, hasieratik eta behin betiko, interesak finkoak izaten dira, eta merkatuko interesen gorabeherak ez dute eraginik izango bezeroak ordaintzen duen kuotan. Honetaz gain, mailegu mistoak ere eskaintzen ditugu, interes finko eta mugikorren konbinaketa eginez. Era honetan, interesen igoeren aurrean, bezeroa babestuta geratzen da.

Interesatuta dauden pertsonak nola jar daitezke harremanetan zuekin?

Zerbitzua interesatu guztien eskura jartzen dugu gure bulegoen bitartez; gaur egun, 120 dira Gipuzkoan.

Herritarren zerbitzura

Badira urte batzuk Etxebizitza Zerbitzua antolatu zuela Kutxak. Itziar Irazusta, bestalde, 1999az geroztik dabil etxebizitzaren gaineko lanetan, eta orain Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria da. “Jendeak etxea erosi edo saltzera zihoanean kontzeptu eta pauso berri eta ezezagun askoren aurrean aurkitzen zela ikusi genuen. Egoera horri irtenbidea topatu guran antolatu genuen gure zerbitzua”, dio Itziarrek. Eta oso harrera ona egin zioten herritarrek zerbitzuari: “Gestioak egiteko orduan alboan izaten

gaituzte, eskutik helduta joaten gara egin beharreko pauso guztietan, eta asko baloratzen dute hori”.

Erosteko orduan bakarrik ez, etxebizitzarekin zerikusia duen edozein gestio egiten laguntzen du Kutxako Etxebizitza Zerbitzua: Salmentako momentuan, etxea erosteko aurrezten pentsatzen hasi denean eta beste hainbat kasutan, Gipuzkoan dituen edozein bulegotara joan eta eskatu besterik ez dute interesatuek: laguntzeko gertu aurkituko dituzte.



HIPOTEKA **ziurra**

☀ interes-tasen igoerek ez dizute erasango zeuk aukeratutako epealdian (gehienez 15 urtekoan).

Eta noizbait ordainketak egokitu beharra gertatuko balitzaizu, honako aukera hauek ere badituzu:

- ☀ ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa murriztekoa.
- ☀ amortizazioaren ordainketa denboraldi batez eteteko.



ETXEBIZITZA-ZERBITZUA
Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

www.kutxa.net

kutxa
zure diruaren balio erantsia



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 49. alia

IEPA LAGUNOK!

Hemen nator berriz be zuekin primeran pasatzeko asmuarekin. Zer moduz ibilli ziñaten Pentekoste jaixetan? Parranda ugari ala? Seguru nago baietz. Ba trankil egon, kurtsua ixa akabauan dago eta. Zela juan da ikasturtia? Dana ondo gaidittuko ziñuen ezta? Hala gustatzen jat neri, ikasle fiñak izatia.

Eta udako oporretan, zelako planak daukazue? Ikastola barik, lagunekin jolasteko nahi adiña denbora, hondartzara eta igerilekura juateko aukeria, ... Zelako gustora ibilliko zareten! Badakizue, ondo ondo aprobe txau denbora hori, segittuan dator hurrengo ikasturtia eta.




Ia APATXI hau gustatzen jatzen eta aurrekuetan bezain ondo egitten dittuzuen ariketak! Gogoratu erantzunen orrixa ondo bete ezkerro, erregalo polittak irabazteko aukeria daukazuela. Horretarako, orrixa ikastetxian bertan entregatu bihar dozue.

ONDO PASATU OPORRETAN eta IRAILLERA ARTE!



OHARRA

Hemendik aurrera jolas bakoitza marrazki batekin juango da, honetxek dira:

-  Loria: 3-6 urteko umeentzat gomendatua
-  Baloia: 7-9 urteko umeentzat gomendatua
-  Kometia: 10-12 urteko umeentzat gomendatua

URREZKO ARAUAK

Nik zu (pertsonia) ikusi, eruan, maitte... esaten dogunian, "zaitut", "nazu", "gaittu", "zaittugu"... aditzak erabilli bihar dira eta ez "detsut", "detsazu", "detsat"...

- Nik asko *maitte detsut* eta zuk *maitte detsazu?*
- Aitorrek gu kotxez *eruingo detsku* etxera.
- Guk zu kalia *ikusi detsugu* lehen.



- Nik asko *maitte zaitut* eta zuk *maitte nazu?*
- Aitorrek gu kotxez *eruingo gaittu* etxera.
- Guk zu kalia *ikusi zaittugu* lehen.




JOLASA

TIRA-BIRA

Lurrian marra bat marrazten da eta marraren alde bakoitzian pertsona kopuru bereko bi talde osatzen dira. Jokalari bakoitzak beste taldeko kide bat euki-ko dau parian. Jokalarixak hanka batekin marra ikutuko dabe eta pare-parian daren kidiak besuetatik oratuta egongo dira.


Jolasaren helburua jokalari batek bere parian daguan kidiari tira egin eta bere aldera erutia izango da, bi hankekin marria pasatu arte, eta baita ondo pasatzia be! Denbora tarte bat zehaztuko da, eta hau pasatu eta gero, kontrako taldeko jokalari gehixen bere aldera erakarri dittuan taldea izango da irabazlia.



JOLASA

Zein egoeratan esango ziñuke esamolde bakoitza? Lotu letrak eta zenbakixak eta ia asmatzen dozun!

- A** On egin daizuela!
- B** Osasunakin urratu daizula!
- C** Pot egindda nago!
- D** Ai, ai, ai, hemendik ospa egin biharko dot!
- E** E! Nik ez dot lehena izan nahi. Zotz egingo dogu?
- F** Ene, ixa ordubete daroiagu mingaiña astintzen eta!
- G** Egonian ederki nago, gero!
- H** Nagixak etaratzen diharduzu goiz osuan, eta behinguan esnatu zaitte!



KOMIKIXA PIRATA AZKARRA

<p>GOIZ BATIAN...</p> <p>Subigaraitxipi bota bihar dogu!</p> <p>Ointxe bertan abisatuko dittut</p>	<p>HURRENGO EGUNIAN...</p> <p>Agur, piratok.</p> <p>Damutuko zara, Subigaraitxipi!</p>	<p>Aitta!</p> <p>Seme!</p>
<p>30 MIN. ONDOREN...</p> <p>Seme!</p>	<p>EKAITZ BATEN ONDOREN...</p> <p>Subigaraitxipi madarikatua! Zorte ona euki ziñuan!</p>	<p>ABERATSAK IZAN ZIREN</p> <p>Egillia: Pello Etxaniz Ikastetxia: Aranzadi Edadia: 9 urte</p>

INKESTIA

UDAKO OPORRAK

- 1- Zer egin izan dozu udako oporretan? Lagunekin zer egiten dozu normalian?
- 2- Kanpora jua izan zara zure familixiarekin? Nora?
- 3- Udalekuetara juateko ohitturarik badaukazu? Nungo udalekuetan egon zara? Lagun berrixak egin dittuzu bertan?
- 4- Zeintzuk dira zure ametssetako oporrak? Nora gustatuko litzazuke juatia eta zergaittik?

- 1- Jolasian ibiltzen gara, futbolian, tenisian...
- 2- Aste batian familixiarekin Andaluziara juaten naiz eta gero kanpiñera Errioxara. Ta batzuetan Bergaran geratzen naiz.
- 3- Ez. Aurten apuntatu naiz baina ez jat tokatu. Aurreko urtietan ez naiz apuntatu, ez neukan interesik. Nahixago dot lagunekin jolastu.
- 4- Holliwood-era. Pelikulak asko gustatzen jatelako. Handixa naizenian aktore izan nahi neuke.

Asier Arriola
11 urte
San Martin



- 1- Ba lagunekin juaten naiz tenisean jokatzerara edo bestela informatikan apuntatzen gara.
- 2- Aurten Italiara jua naiz eta datorren urtian berriro jua nahi neuke. Aurreko urtietan Frantziara jua izan gara. Nire izebak txalet bat dauka eta bertara juaten gara.
- 3- Bi urtetan jua nintzen Arotzenera. Nafarruan dago. Ondo pasau neban eta lagun asko egin nittuan. Aurten ez dot uste juango naizenik.
- 4- Londresera edo Italiara jua nahi neuke.

Borja
Elkoroberezibar
12 urte
San Martin



- 1- Hondartzara edo igerilekuetara jua eta lagunekin jolastu.
- 2- Lehenengo Bergaran geratzen naiz eta gero Sanjenjora (Galizia) juaten naiz familixiarekin. Han hondartzara juaten gara. Bertan lagunak daukat eta urtero juaten naiz Sanjenjora .
- 3- Aurreko urtian jua nintzen Arotzenera. Jende asko ezagutu giñuan eta lagun berrixak egin giñuzen. Azken egunian helbidiak eta telefono zenbakixak emon gontsan elkarri, gutunak idazteko. Igerilekua be bazeguan.
- 4- Parisera juango nintzake, politta dala esaten dabelako.

Saioa Rodríguez
11 urte
San Martin



- 1- Lagunekin geratzen naiz eta plazan edo parkian jolasten gara. Bizikletarekin eta patinerekin be ibiltzen gara. Udan Arrasate edo Bergarako piszinara juaten gara.
- 2- Frantziara juaten naiz nere familixiarekin. Nere osaba han bizi da. Uda osua han pasatzen dogu. Hondartzara juaten gara, lagunak daukat han eta.
- 3- Aurten ez jat tokatu. Baiña Lizarra, Goñi eta Zuatzako udalekuak ezagutzen dittut. Han futbolian eta bale-baleka jolasten giñan, jokuak eta diskoteka be bazeren. Zuatzako udalekuetan kanpiñak zeren. Hau da gehixen gustatu jaten udalekua. Egunez uretako kirolak zeren eta gabaz unxiak hartzen giñuzen.
- 4- Hawai-ra juango nintzake, gustatzen jatelako. Hondartzara juango nintzake.

Ainhoa Agiriano
12 urte
San Martin



GALDERIA



Ezetz asmau Bergarako ze futbol-zelai eta ze
 Euzoren izenetan agertzen dan "osin" berbia?
 "Osin" berbiak "putzua" esan nahi dau.



KANTUA

*Binbili bonbolo
 senda lo?
 Akerra Frantzian
 balego
 astoak kanta,
 idiak dantza,
 ahuntzak
 danboliña jo.*

*Binbili bonbolo
 senda lo?
 Akerra Frantzian
 balego,
 astoak kanta,
 idiak dantza,
 ahuntzak
 danboliña jo.*

*Hitzak eta musika: herrikoia
 Xirula Mirularen "kun-kun lolo" bilduman, Oskorriren Katuen
 testamentua diskoan eta Bergarako Udalak oparitutako Zorionak
 diskoan topatu zeinkie.*



ERANTZUNAK

Juan zan hilleko lehiaketaren erantzun zuzenak:

- **KANTUA:** Behin batian Loiolan
 1-b ; 2-h ; 3-c ; 4-j ; 5-a ; 6-g ; 7-i ; 8-e ; 9-d ; 10-f.
- **IGARKIZUNAK:** 1-zulua, 2- hazurra, 3- keizpia
- **ESAMOLDIAK:** Erantzun zuzena : c
- **HERRI KIROLAK:**
Sailkapena
 1. postuan Nahikari; 2. eta 3. postuetan, berdinduta, Ainara eta Jon; 4.
 eta 5. postuetan, berdinduta, Beñat eta Xabier; 6. postuan, Miren.

Honek dira puntuaziñuak:

- ZAKU LASTERKETIA
- TXINGA LASTERKETIA
- ARTA KASKARA BATZIA
- IKUTU BARIK
- ARRAUTZA LASTERKETIA
- LUZEERA SALTUA

- **DANERA**


MIREN	BEÑAT	XABIER	AINARA	NAHIKARI	JON
3	6	1	2	5	4
1	4	3	6	5	2
2	4	3	1	5	6
4	1	5	6	2	3
3	2	4	1	5	6
5	3	4	6	2	1
18	20	20	22	24	22

MAIATZEKO IRABAZLIAK

2.a Aitor de Benito
 San Martin ikastetxia,
 11 urte

3.a Elene Etxaniz
 Aranzadi ikastola,
 12 urte

Zorionak hiruroi!



Julen Murgiondo
 4 urte
 Aranzadi Ikastola